



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

2021eko UDAKO JARDUERAK

Aurtengo udako oporretan, **herriko haur eta gaztetxoei urteroko Udako Jardueretan parte hartzeko aukera eman nahi diegu**. Jarduera hauetan 2 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek parte har dezakete.

Iaz ezin izan genituen udako jarduerak ohi bezalako formatuan antolatu pandemia dela eta. Aurten, eta ikas-kurtso oso bateko esperientzia bizi izan dugunean, **garrantzitsua iruditu zaigu herriko haurrei herrian bertan euskarazko aisialdia eskaintzen dien urteroko programa berreskuratzea**.

Taldean antolakuntza, eskolakoaren berdina izatea nahiko genuke, eta horregatik aurten izen-emateko epea aurreratu da. Lehenbailehen jakin behar dugu zenbat haurrek ematen duten izena, eta horren arabera taldeak antolatuko ditugu.

Taldeak osatzeko garaian, talderen batean uste baino haur gutxiagok emango balute izena, aztertuko litzateke gertuen diren adinetako haurrekin udako burbuilak osatzea. Talde bakoitzak bere espazio propioa izango du eta higiene eta segurtasun neurriak betetzeko protokoloa prestatuko da.

Izena ematen duten haurren familiekin bilera bat egingo da eta begiraleen aurkezpena egiteaz gain, programazioaren azalpen orokorra eta jardueretan indarrean jarriko den protokoloa azalduko zaizue. Protokoloak eskolak indarrean dituen atalak kontuan izango ditu.

Udako Jarduera hauek **uztailaren 5etik 23ra** izango dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Matrikula: 22 euro.

Jarduera hauetan parte hartu nahi duenak, honekin batera bidaltzen dizuegun izen-emate orria bete eta Kultur Etxera eraman behar du. **Izena emateko azken eguna: apirilak 30, ostirala.**

Zaldibian, 2021eko apirilaren 19an



HAURREN UDAKO JARDUERAK 2021 IZEN-EMATE ORRIA

HAURRARI BURUZKO DATUAK

1.abizena	2.abizena	Izena	Jaioteguna

GURASO EDO TUTOREEI BURUZKO DATUAK

1.abizena	2.abizena	Izena
Telefono zenbakia	Helbidea	Korreo elektronikoa
1.abizena	2.abizena	Izena
Telefono zenbakia	Helbidea	Korreo elektronikoa

OHARRAK NOLA JASO NAHI DITUZUN ZEHAZTU

Paperean	Korreo elektronikoz	WhatsApeez

HAURRAREN OSASUNARI BURUZKO DATUAK

Gaixotasunik edo alergiairik?	
Sendagairik? Zein? Maiztasuna?	
Haurrak ba al daki igerian?	
Kontuan hartu beharreko besterik?	

Data eta arduradunaren sinadura:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

HAURREN GURASOEN BAIMEN ORRIA

Guraso edo tutorearen datuak: _____

Hauraren datuak: _____

Baimena emanaz gero, dagokion laukian X bat egin:

2021 Udako jardueretan antolatuko diren Zaldibiako inguruetara joateko irteeretan nire seme-alabak parte hartzeko baimena ematen dut.

2021 Udako Jardueretako ekintzetan ateratzen diren argazkietan nire seme-alabak agertzeko, eta argazki horiek "zaldibia.eus" eta "zaldibia.org" webguneetan edo bestelako udal argitalpenetan publikatzeko baimena ematen dut.

2021 Udako Jardueretako ekintzetan egin daitezkeen grabazioetan nire seme-alabak agertzeko, eta Zaldibiako Udalak grabazioak argitaratzeko baimena ematen dut.

Sinadura